Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4605

EBAZPENA, 2010eko irailaren 15ekoa, Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko sailburuordearena; honen bitartez, lanerako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko 2010ean esleitutako kredituen guztizko zenbatekoaren aldaketa iragartzen da, eta aldaketa hori III. kapituluan araututako laguntzak –Plantillak berritzeko laguntzak– estaltzeko emandako aurrekontu-kreditua handituz gauzatuko da.

2010eko maiatzaren 21eko 94. zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2010eko maiatzaren 5eko Ebazpena argitaratu zen. Ebazpen hori Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko sailburuordearena da eta horren bitartez, enplegurako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko 2010ean esleitutako kredituen guztizko zenbatekoa eman da ezagutzera. Zenbateko hori 6.873.491,39 euro da.

2010eko maiatzaren 5eko Ebazpenaren bigarren erabakian ezartzen da ezen, zenbateko hori, behar izanez gero, eguneratu ahal izango dela, indarreko legeriaren arabera aurrekontuetan aldaketak egitea onartzen bada. Aldaketa horiek egiten badira, zirkunstantzia hori argitara emango da Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

Gaur egun, langabezia-tasa oraindik ere handia denez gero, guk uste dugu abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuaren III. Kapituluan (Plantillak berritzeko laguntzak) azaltzen den diru-laguntza lineak (linea hori plantillen ordezkapeneko eta berriztapeneko Lanbide arteko Akordioa izenekoa ari da berresten) Eusko Jaurlaritzaren eskutik, diru-laguntzaren alderdi gisa elkarrizketa-prozesua igaro ostean Lan Harremanen Kontseiluko kideek 1999ko urtarrilaren 15ean sinatu zuten <<Enpleguari buruzko Akordioa>> deiturikoaren barruan hartutako derrigorrezko akordioak gisa) modu eraginkorrean jarrai diezaiekeela laguntza ematen enplegu-politikei; horregatik, erabaki dugu eskuragarri dagoen kredituari 600.000 euro gehiago ematea, 2010eko ordainketa-kredituaren kontura.

Dagozkion izapideak egin ostean, baimena eman da aipatutako laguntzak finantzatzeko bideratutako kredituak berriz ere gehitzeko. Zabalkuntza horren ondorioz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan helburu hori lortzeko ordainketa-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

4605

RESOLUCIÓN de 15 de septiembre 2010, del Viceconsejero de Empleo, Formación e Inclusión Social, por la que se da publicidad a la modificación del importe total de los créditos asignados en el año 2010 a la financiación de las ayudas previstas en el Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulan las ayudas al empleo, ampliando el crédito presupuestario destinado a la cobertura de las ayudas reguladas en el Capítulo III, Ayudas a la Renovación de Plantillas.

En el Boletín Oficial del País Vasco n.º 94, de 21 de mayo de 2010, se publicó la Resolución de 5 de mayo de 2010, del Viceconsejero de Empleo, Formación e Inclusión Social, por la que se da a conocer el importe total de los créditos asignados durante el año 2010 para la financiación de las ayudas previstas en el Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, por la que se regulan las ayudas al empleo, cuya cuantía asciende a 6.873.491,39 euros.

El resuelvo segundo de la Resolución de 5 de mayo de 2010 establece que dicha cuantía podrá verse, en su caso, actualizada en el supuesto de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. En el supuesto de que existan dichas modificaciones, se dará publicidad a esta circunstancia mediante Resolución del Viceconsejero Empleo, Formación e Inclusión Social.

En la fecha actual, dada la persistencia de una alta tasa de desempleo, se considera que la línea subvencional del capítulo III, Ayudas a la Renovación de Plantillas, del Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, como vertiente subvencional que viene refrendando, desde el Gobierno Vasco, el denominado Acuerdo interprofesional sobre sustitución y renovación de plantillas como acuerdo de carácter obligacional alcanzado dentro del denominado <<Acuerdo sobre el empleo>> que el 15 de enero de 1999 suscribieron los miembros del Consejo de Relaciones Laborales tras el proceso de dialogo, puede seguir contribuyendo eficazmente a las políticas de empleo, por lo que se ha decidido ampliar el crédito disponible en 600.000 euros más, con cargo al crédito de pago de 2010.

Previa realización de los trámites oportunos, se ha autorizado una nueva ampliación de los créditos destinados a la financiación de las ayudas referidas. Como consecuencia de esta ampliación, habiéndose certificado por la Oficina de Control Económico que

kreditu egokia eta nahikoa dagoela Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiaztatu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuan araututako laguntzak finantzatzeko esleitutako gehieneko zenbateko globalaren aldaketa iragartzea eta zenbateko hori 2010eko ordainketa-kredituko 600.000 eurotan handitzea, guztizko zenbatekoa honako hau izanik: 7.473.491,39 euro.

Kreditu gehigarri hori 329/2003 Dekretuaren III. kapituluko laguntzak (Plantillak berritzeko laguntzak) finantzatzeko erabiliko da.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea jendeak horren berri izan dezan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluari eta hurrengoei jarraiki.

Bigarrena.– Ondorioak.

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 15a.

Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko sailburuordea,
JAVIER RUIZ FERNÁNDEZ.

existe crédito de pago adecuado y suficiente al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco,

RESUELVO:

Primero.– Dar publicidad a la modificación de la cuantía global máxima asignada para la financiación de las ayudas reguladas en el Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, aumentándola en la cantidad de 600.000 euros de crédito de pago correspondiente al año 2010, de manera que el importe total queda establecido en 7.473.491,39 euros.

Este crédito adicional se destinará a financiar las ayudas correspondientes al Capítulo III, Ayudas a la Renovación de Plantillas, del Decreto 329/2003.

Segundo.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco para general conocimiento.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Recursos.

Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Efectos.

La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de septiembre de 2010.

El Viceconsejero de Empleo, Formación e Inclusión Social,
JAVIER RUIZ FERNÁNDEZ.